

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“Uribarri Gaubeako hondakin uren kolektorea Villanañerekin lotzeko eraikuntza proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara

Foru Gobernu Kontseiluak, 2019ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, 296/2019 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Uribarri Gaubeako hondakin uren kolektorea Villanañerekin lotzeko eraikuntza proiektua” jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzutea. Desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea eta okupatu beharra adieraztea. Presazko okupazioa adieraztea. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 355/2018 Erabakiaren bitartez, behin betiko onetsi zen Uribarri Gaubeako hondakin uren kolektorea Villanañerekin lotzeko eraikuntza proiektua, eta hasierako onespena eman zitzaion proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari eta hura jendaurrean jartzeari.

Proiektua jendaurrean egon den aldi idatzizko alegazio teknikoak aurkeztu dira espedienteko 10/000, 12/000, 25/000, 26/000, 29/000 31/000 eta 32/000 finkei lotuta, eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak aipatutako idazki horien gaineko txostenak egin eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak onetsi ditu, eta bere egiten ditu Gobernu Kontseilu honek; horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Alegazioei erantzunda, behin betiko onetsi behar da proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, jendaurreko aldi aurkeztutako alegazioen erantzuna eta egindako egiaztaketak kontuan hartuta egina, bai eta haiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratu ere, desjabetu eta aldi batez okupatu, eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela eta, ondorioz, presazko okupazioa adierazi behar da. Ildo horretan, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak jakinarazi du Uribarri Gaubeako oraingo arazketa sistema ez dela eraginkorra Europako zuzentzaruek ezartzen dituzten ingurumen helburuak betetzeko; horregatik, planteatzen da une honetan kolektore bat eraikitzea, grabitatez lan egingo duena eta hango hondakin urak Villanañeko kolektorearekin lotuko, dena batera arazteko Gaubeako hondakin uren araztegiari. Era horretan, arazketa sistema eraginkorragoa izango da eta Kontserbazio Bereziko Zonatzat katalogatuta dagoen Omecillo ibaiaren uren kalitatea hobetuko da eta, horrenbestez, konpondu egingo dira egungo putzu septikoaren ondorioz gaur egun diren ingurumen arazoa eta osasun publikoko arazoa.

Premiazko jotzeko izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak 46 1.b) artikuluan xedatutakoari eta otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren xede den herrilana proiektatu eta gauzatzeko, honako hauek xedatutakoari jarraituz: toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31.2 a) eta 36. artikulua; toki araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikulua, eta Autonomia Erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 a.10 artikulua.

Eskumen hori egikaritzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan. Era berean, adierazi behar da erakunde honen barne eremuan Foru Gobernu Kontseilu hau dela organo eskuduna desjabetzapenak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta horiek okupatu beharra onesteko, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den aurrekontu kreditua badagoela jaso baita.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuen proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Erantzutea Uribarri Gaubeako hondakin uren kolektorea Villanañerekin lotzeko eraikuntza proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jendarean egon den bitartean aurkeztutako alegazioei, baietsi edo ezetsita, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak txostenean jasotakoaren arabera.

Bigarrena. Onestea proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, honekin batera doan eranskinean jasotzen dena, eta haiek okupatu eta eskuratu beharra adieraztea, desjabetzeko, aldi batez okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Hirugarrena. Adieraztea honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, eta, horregatik, desjabetze espediente Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Laugarrena. 79.367,46 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko aurrekontuaren 50106.5300.6000004 "Desjabetzapen hidraulikoak" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-1601/000.19.5.19), eragindako ondasunen eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak I. eranskinean zerrendatutako finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta xedapen erreferentziaren kontura. Zenbateko hori Desjabetzapen Atalaren buruaren ordainketaren proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Seigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen 21/2017 Foru Arauaren 16.1.a) artikulua (21/2017 Foru Araua, abenduaren 22koa, Arabako Lurralde Historikoko 2018rako aurrekontua gauzatzeko)."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsoaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Gaubeako Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 14a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

Esp./Espe. 2018/43

URBARRI GAIBEAKO HONDAKIN UREN KOLEKTOREA VILLANAREKIN LOTZEKO ERAKUNTZA PROIEKTUA
PROYECTO CONSTRUCTIVO DEL COLECTOR DE AGUAS RESIDUALES DE VILLANUEVA DE VALDEGOWA A VILLANUE

FINKAREN ZK.	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	BEHIN-BETIKOA	ERAGINDAKO AZALERA m ²		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	PARCELA					ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES		TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	SUPERFICIE AFECTADA m ²	SERVIDUMBRE	DIA	HORA
									Saneamiento 3m		
24/000	SORRON ANGELO, ISERICO SORRON ANGELO, ALFREDO SARRIBE REY, TELSEA SORRON LARRIBE, M. YOLANDA SORRON LARRIBE, FERNANDO JOSE	14	428	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			1.366	293	10/06/19	10:00
8/000	GUINEA SASTRE, JOAQUIN JOSE IGNACIO	14	331	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		4	2.287	489	10/06/19	10:45
11/000	MARDONES VALLE, MIGUEL ANSEL	14	342	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			2.022	432	10/06/19	12:00
13/000	MARDONES VALLE, MIGUEL ANSEL	14	344	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		4	1.221	259	10/06/19	12:00
6/000	MARDONES VALLE, MIGUEL ANSEL	14	329	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		8	3.586	431	10/06/19	12:00
3/000	HERRAN PEREDA, JAVIER HERRAN PEREDA, M. CARMEN ANGULO PEREDA, M. ELENA ANGULO PEREDA, PILAR	14	304	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		8	4.649	699	11/06/19	10:00
1/000	ALONSO FERNANDEZ DE ARANGUIZ, CARMELO	14	309	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		4	2.190	318	11/06/19	10:45
17/000	AZTRIA ECHEGUIA, M. MILAGROS	14	351	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			164		11/06/19	12:00
15/000	ANGULO RUILOPE, JUAN JOSE	14	360	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			1.152	202	11/06/19	12:45
25/000	ANGULO RUILOPE, JUAN JOSE	14	431	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		4	550	115	11/06/19	12:45
21/000	BARRO TABAS, ANA YANEZ BARRO, MARIA CARMEN YANEZ BARRO, ANA MARIA	14	356	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			1.735	372	12/06/19	10:00
18/000	FONTECHA GUINEA, M. DOLORES	14	352	GAIBEA / VALDEGOWA	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO			314	53	12/06/19	10:45
20/000	GONZALEZ BARDECI, ISIDRO	14	355	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		4	2.135	328	12/06/19	12:00
10/000	HEREDEROS DE JUAN MANUEL ORIVE GUINEA	14	341	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		4	2.728	581	12/06/19	12:45
12/000	HEREDEROS DE JUAN MANUEL ORIVE GUINEA	14	343	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		4	784	165	12/06/19	12:45
19/000	MARTINEZ LOPEZ, M. LUZ PEREZ DE CARCAMO MARTINEZ, PEDRO MARIA PEREZ DE CARCAMO MARTINEZ, ALBERTO PEREZ DE CARCAMO MARTINEZ, M. MARGARITA	14	357	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			942	222	13/06/19	10:00
23/000	ORIVE VELEZ, SEBASTIAN	14	345	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			369	79	13/06/19	10:45
22/000	GUINEA PLAGARD, ANA MARIA	14	425	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		4	1.060	224	13/06/19	12:00
22/000	GUINEA PLAGARD, MIGUEL	14	426	GAIBEA / VALDEGOWA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		4	698	146	13/06/19	12:45
30/000	GUINEA PLAGARD, MIGUEL	14	238	GAIBEA / VALDEGOWA	HRH-LURRA / URRANO	Lursail itxera / Centre de parcelas	4	340	78	13/06/19	12:45
29/000	HEREDEROS DE CARMELO OJEMBARRENA SOLAIN	14	240	GAIBEA / VALDEGOWA	HRH-LURRA / URRANO	Lursail itxera / Centre de parcelas		228	53	14/06/19	10:00
26/000	URBETA ARABOURITIA, IGNACIO	14	243	GAIBEA / VALDEGOWA	HRH-LURRA / URRANO	Lursail itxera / Centre de parcelas		414	89	14/06/19	10:45
27/000	MARTINEZ ARESTI, JUAN BENITO	14	242	GAIBEA / VALDEGOWA	HRH-LURRA / URRANO	Lursail itxera / Centre de parcelas		524	113	14/06/19	12:00
31/000	PNEDO BARDECI, ALFREDO	14	236	GAIBEA / VALDEGOWA	HRH-LURRA / URRANO	Lursail itxera / Centre de parcelas	4	832	194	14/06/19	12:45

FINAREN ZK.	Nº FINCA	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDIA	ERAGINDAKO ONDASIMA	BEHIN-BEHINGOA		ERAGINDAKO AZALERA m ²		EGUNA	ORDUA
			POLIGONIA	LIBEZATA				DEFINITIVA	TEMPORAL	ALDI BATERAKOA	ZOR TASUNA		
		NOMBRE DEL TITULAR	POLIGONO	PARCELA	TERMINO MUNICIPAL	ARROVECHAMIENTO	BEN AFECTADO			SEPEEKEZ AFEKTATUA m ²	SERVIDUMBRE	DIA	HORA
32/000		PNEDO BARDECI, JESUS	14	235	GAUBEA / VALDEGOVIA	HRI-LURRA / URBANO			522	146		14/06/19	12:45
7/000		PNEDO BARDECI, ALFREDO	14	330	GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / URBANO		8	2.473	526		17/06/19	10:00
16/000		ORTIZ DE GUINEA P. AGARO, ESTHER	14	359	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR			626	179		17/06/19	10:45
9/000		ALAVA PNEDO, M. PILAR	14	332	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR		4	1.474	313		17/06/19	12:00
4/000		VADILLO GUINEA, F. JAVIER	14	305	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR			1.083	160		17/06/19	12:45
5/000		VADILLO GUINEA, F. JAVIER	14	328	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR		8	1.861	307		17/06/19	12:45
28/000		LOPEZ VERGEL, MANUEL	14	241	GAUBEA / VALDEGOVIA	HRI-LURRA / URBANO	Lursi tenia / Cierre de parcela		221	47		18/06/19	10:00
2/000		MARDONES CELADA, ANA MARIA	14	303	GAUBEA / VALDEGOVIA	BARATZEA / HUERTA		29	1.072	192		18/06/19	10:45
33/000		JUNTA ADMINISTRATIVA DE VILLANÑE	14	221	GAUBEA / VALDEGOVIA	HRI-LURRA / URBANO			39	2		18/06/19	12:00
34/000		JUNTA ADMINISTRATIVA DE VILLANÑE	14	222	GAUBEA / VALDEGOVIA	HRI-LURRA / URBANO			423	99		18/06/19	12:00
35/000		JUNTA ADMINISTRATIVA DE VILLANÑE	14	459	GAUBEA / VALDEGOVIA	HRI-LURRA / URBANO			26	4		18/06/19	12:00
1/080		AYUNTAMIENTO DE VALDEGOVIA	14	67	GAUBEA / VALDEGOVIA	HRI-LURRA / URBANO		4	451	100		18/06/19	13:00
1/090		AYUNTAMIENTO DE VALDEGOVIA	14	68	GAUBEA / VALDEGOVIA	HRI-LURRA / URBANO			46	8		18/06/19	13:00